

Arriagaren lana, begi bistan

Musikagilearen partituren faksimileak, biolina eta erretratua bildu dituzte erakusketa batean

Maite Asensio. Bilbo.

Juan Crisostomo Arriagaren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko azken ekitaldi multzoa aurkeztu zuen atzo Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Sailak. Hiriko musikaririk unibertsalaren omenez erakusketa eta hitzaldi ziklo bana antolatu dituzte. Horietan artistaren bizitza eta obra ez ezik, Arriaga jaio zeneko XIX. mende hasierako Bilbo haren egoera historikoa ere aztergai egongo da.

Atzo hasi eta urtarrilaren 14ra arte Zabalgune egoitzan ikusgai egongo den erakusketak musikariaren bizitza eta lanak jorratzen ditu. Arriagak ahots musikarako zein musika instrumentalerako sortutako piezen pentagramen faksimileak eta horien inguruko iruzkinak daude bertan, baita artistaren biolina eta erretratu bakarra ere. Horien ondoko gune interaktiboan Arriagaren piezarik ospetsuenak entzun daitezke.

Gainera, erakusketak Arriagaren ingurunea ere aztertzen du. Garaiko Bilbo hiriaren izaera eta egoeraren inguruko hainbat argazki eta idatzi eskaintzen ditu. Musikariaren lanak ezagutarazi zituzten senideen medailoi, erretratu eta eskulturarik ere badago erakusketan.

Erakusketako elementurik baliotsuenak Arriagaren biolina eta bolizko medailoi bat dira.

Era berean, Udalak familientzako eta eskolentzako bisita gidatuak jarri ditu abian. Horietan, XIX. mendeko arropaz jantzitako aktore batek Arriagaren munduan zehar gidatuko ditu ikusleak. Hurrei, gainera, konpositorearen bizitzari buruzko komiki bat eta koloreztatzeko bi marrazki emango dizkiete. URTE OSOKO EMANALDIEN AMAIERA. Amaitzear dagoen urte honetan omenaldi berezia egin nahi izan dio Bilboko Udalak Juan Crisostomo Arriagari. Urte hasieran musikariaren etxean eta Arriaga Antzokian hainbat omenaldi egin zituzten, eta ekaineko Musikaren Europako Eguna ere Arriagari eskaini zioten. Gainera, urtean zehar hainbat ekimen burutu ditu Udalak, hala nola, Arriagaren partituren digitalizazioa, edota laster aurkeztuko den bere lan osoen azterketa eta edizio kritikoa. Jon Sanchez Bilboko Kultura zinegotziaren hitzetan, ekintzok Bilboko hiritarrei Arriagaren figura hurbiltzeko asmoa dute. Musikologoei, adituei eta musika sinfonikoaren zaleei ez ezik, Bilboko herriari ere zuzendu nahi izan diogu, kontuan izanik agian hiriko jende ugari Arriaga Udal Antzokiaren izena baino ez dela uste duelako.

Izan ere, Juan Crisostomo Arriaga pertsonaia ezezaguna delakoan dago Bilboko Udalak. 1806ko urtarrilean Bilboko Zazpikaleetan jaioa, oso txikia

izanik erakutsi zuen bere musikarako trebetasuna. 15 urterekin Parisera joan zen eta ikasle izatetik irakasle izatera igaro zen bi urte eskasetan. 20 urte bete baino egun batzuk lehenago, ordea, hil egin zen, tuberkulosiak jota. Arriagarekin batera desagertu zen bere ondarea, ilobaren seme Emiliano Arriagak berreskuratu eta zabaldu zuen arte.

Zabalguneko erakusketarekin eta Bidebarrieta liburutegian egunotan egingo diren hitzaldiekin amaituko da Arriagaren urtea. Nolanahi ere, urte hasieran hasitako Arriaga bizirik izeneko ekimen multzo hau, ordea, 2007an amaituko da. Datorren urtarrilaren 4an Botxo Boogies bandak Arriagaren piezak jazz, bals, bolero, samba eta funk estiloetara moldatuko ditu, Zabalgune egoitzan bertan.

Arriagaren lanak eta garai hartako Bilbo hiria mintzagai Bilboko Bidebarrieta liburutegian Arriaga eta XIX. mendeko Bilbo izeneko hitzaldi zikloa izango da abenduaren 14ra arte. Atzotik datorren ostegunera arte, Arriagaren konposizioak eta XIX. mendeko Bilbo hiriaren testuinguru historikoa jorratuko dituzte mintzaldiotan.

Alde batetik, Arriagaren obren hainbat esparru aztertuko dituzte: garapena, hezkuntza, interpretazioa, edizio kritikoa... Bestalde, Arriagaren musikan eragina izan zuten musikariez eztabaidatuko dute, baita Arriagak gainerako musikarietan, Bilbon bertan edota beste herrietan izan duen eraginaz ere. Hainbat adituk hartuko dute parte hitzaldiotan. Besteak beste, Isabel Diaz Morlan, Fernando Delgado, Willem de Waal eta Judith Ortega musikologoak, Carlos Villasol musikagilea, Karmelo Errekatxo musika kritikaria, Juan Antonio Zubikarai kazetaria eta Juanjo Mena Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendari titular eta artistikoa egongo dira.